

DEIALDIA

KULTURA ETA KIROL TALDEEN DIRU-LAGUNTZAK

Ioritz Berra Juaristi, Zaldibiako Udaleko alkatearen 2026ko otsailaren 19ko ebazpena, Kultur eta Kirol taldeei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen:

“Ioritz Berra Juaristi, Zaldibiako Udaleko Alkatea, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, ERABAKI DUT:

- Kultur eta Kirol taldeei dirulaguntzak emateko prozesuari hasiera ematea (2026IDIR0002).
- Kultur eta Kirol taldeei 2026 urtean dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea.
- Zaldibiako Udalak xede horretarako 18.000 euroko zuzkidura dauka aurreikusita 2026ko aurrekontu orokorrean, hain zuzen ere, 1.0000.480.334.00.01.2026 (89) Kultur eta Kirol taldeei dirulaguntzak partidan.
- Eskaerak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 26tik martxoaren 18ko arratsaldeko 13:00ak artekoa izango da.

Eskaerak egiteko, oinarri arautzaileekin batera Zaldibia.eus-en txertatutako eskaera-orria erabiliko da, eta osatu ondoren Udalaren egoitza elektronikoan, edo udaletxeko harrera bulegoan erregistratuko da. Udaletxeko harrera bulegoko ordutegia honako da: astelehenetik ostiralera, goizeko 8:30etatik 15:30era.

- Aurkeztutako eskaerak akatsak baldin baditu, eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta 10 eguneko epea izango du zuzentzeko. Hori horrela egin ezean, eskaera aurkeztu duenak atzera egin duela ulertuko da.
- Deialdia, oinarri arautzaileak eta eskaera egiteko inprimakia Zaldibiako Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

OINARRI ARAUTZAILEAK

Gaia: Kultur eta Kirol programak gauzatzeko dirulaguntza

Arloa:	Kultura eta Kirola
Data	2026ko otsailaren 16a
Espedientea	2026IDIR0002
Titularra:	ZALDIBIAKO UDALA (P2008400J)
Azalpena:	2026KO KULTUR ETA KIROL TALDEEN DIRU-LAGUNTZAK

OINARRIAK

Lehenengoa: Deialdi honen helburua da, 2026. urtean zehar Zaldibiako irabazi asmorik gabeko kultur erakundeei beraien kultur proiektuen eta urteko programen garapena finantzatzera zuzendutako dirulaguntzen emakida baldintzak arautzea.

Bigarrena: Kultur ekimenak garatzea lagunduko da diruz, eta horretarako, honako baldintza hauek bete behar dituzte interesa duten erakundeek:

- Zaldibiako Udalak egiten dituen ekimenen osagarri izatea edo haiek ordezkatzeta, edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak izatea, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.
- Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak. Bere izaera eta helburuak direla-eta udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnen eskaerak, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko dira eta horren berri emango zaio interesatuari.

Hirugarrena: Dirulaguntza eskatu ahal izango dute, bere kultur eta kirola jarduerak deialdi honetan zehaztu den arloan garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde nahiz pertsonak, beti ere bere jardun eremua Zaldibian badago.

Laugarrena: Zaldibiako Udalak xede honetarako 18.000 euroko zuzkidura dauka aurreikusita 2026ko aurrekontuan, hain zuzen ere **1.0000.480.334.00.01.2026 (89) KULTUR ETA KIROL TALDEEI DIRULAGUNTZAK** partida eta kontzeptuan dago jasota. Zenbateko hori handitu ahalko da Udal Aurrekontua gauzatzeko Oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

DIRULAGUNTZAK partida eta kontzeptuan dago jasota. Zenbateko hori handitu ahalko da Udal Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Bosgarrena: Laugarren puntuan adierazitako diru-zuzkiduraren zenbatekoa eskatzaile kopuruaren eta ondoko taulan idatzitako irizpideen eta puntuazioen arabera esleituko da (100 puntu guztira).

Diru laguntzak jasotzeko ezarritako gutxienezko 50 puntukoa da, eta gutxienezko puntuazioa lortzen ez duten proiektuak diru-laguntzen banaketatik kanpo gera daitezke.

Irizpideak	Puntuazioa
Proposatutako programaren ezaugarriak (35 puntu gehienez ere)	
1. Proiektuak zaldibiarrentzat duen garrantzia.	2
2. Programak herriko kulturari eta kirolari egiten dion ekarpena.	5
3. Aurrera eramango den programa garatzeko beste elkarrekin elkarlana.	3
4. Proposatutako programaren ibilbidea eta finkatzea.	5
5. Ekintza horrek erdiguneaz gain auzoetan eragina izatea.	5
6. Egitarauan berrikuntzak eta egitarau berriak txertatzea.	2
7. Proposatutako jardueretan atzerriko jatorria duten herritarren parte-hartzea bultzatzeko bideak martxan jartzea.	3
8. Euskararen erabilera bermatzeko eta sustatzeko konpromisoa.	5
9. Genero-berdintasunaren sustapenean proiektuak duen eragina.	5
Erakundearen irimotasuna eta ezaugarriak (40 puntu gehienez ere)	
10. Udalaren ekimenetan parte hartzea.	10
11. Erakunde eskatzailearen dedikazioa eta boluntario sarea.	10
12. Urtean zehar antolatzen dituen ekintzak.	5
13. Dirulaguntzaren xede den proiektuarekiko eskatzaileak duen esperientzia.	5
14. Proiektuak denboran zehar izango duen egonkortasuna.	5
15. Proiektuak Zaldibiako Udalaren jardura-programekiko duen lotura.	5
Eskatzailearen finantza baliabideak (gehienez 25 puntu)	
16. Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen edo elkarrearen aurrekontua ondo aurkeztea deialdira.	10
17. Proiektuaren aurrekontua eraginkorra izatea, egin behar diren jardueren egokitua.	5
18. Beste erakunde batzuekin batera finantzatzea proiektua.	10

Dena dela, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera ere izango da.

Seigarrena: Diru-laguntzak honela banatuko dira.

- 50 puntutik 59 puntura eskatutako diru-laguntzaren %60 arte.
- 60 puntutik 69 puntura eskatutako diru-laguntzaren %70 arte.
- 70 puntutik 79 puntura eskatutako diru-laguntzaren %80 arte.
- 80 puntutik 89 puntura eskatutako diru-laguntzaren %90 arte.
- 90 puntutik 100 puntura eskatutako diru-laguntzaren %95 arte.

Zazpigarrena: Eskerak Zaldibiako Udalaren bulego birtualeko egoitza elektronikoan (www.zaldibida.eus) edo udaletxeko herritarren arreta zerbitzuan erregistratuko dira. (Santa Fe kalea, 18. 20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa), Telefono zenbakia: 943880357)

Zortzigarrena: Eskerak aurkezteko epea otsailaren 26tik martxoaren 18ko arratsaldeko 13:00etara bitartekoa izango da.

Bederatzigarrena: Zaldibiako Udalarekiko betebeharretan egunean egon beharko da dirulaguntza jasoko bada; alabaina, ez da ziurtagiririk aurkeztu behar, Udalak berak egiaztatuko baitu baldintza hau betetzen dela.

Hamargarrena: Diru-laguntzaren eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztu behar dira:

- a) Eskara-orri normalizatua (I. Eranskina). Elkarre bateko ordezkari gisa ari den pertsonaren izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetarako datuak adierazi beharko dira.
- b) Ekintzei buruzko fitxa (II. Eranskina).
- c) Elkarre: Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia.
- d) Pertsona fisikoak: Nortasun Agiriaren Kopia identifikazio fiskal gisa.
- e) Elkarre Eusko Jaurlaritzako Elkarre eta Erakundearen Erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- f) Eskatzailea diru-laguntza jasotzeko kontu korrontearen titularra dela egiaztatzen duen banku-agiria (III. Eranskina).
- g) Bestelako erakunde, organismo edo organizazio batzuei dirulaguntzak lortzeko egindako eskaeren aitorpena, edota, halakorik balego, jasotzen dituzten diru-laguntzaren aitorpena (IV Eranskina).
- h) Honako egiaztagiria aurkeztu beharko dira:
 - a. Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera egotearen ziurtagiria (V. Eranskina)
 - b. Ogasuneko betebeharrak betetzearen zinpeko aitorpena (VI. Eranskina).
- i) Elkarre ez duela bazterketarik egiten adierazten duen zinpeko- agiria (VII. Eranskina).

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Zaldibiako Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Nolanahi ere, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

Hamaikagarrena: Aurkeztutako eskaerak akatsak baldin baditu, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta 10 eguneko epea izango du zuzentzeko. Hori horrela egin ezean, eskaera aurkeztu duenak atzera egin duela ulertuko da.

Hamabigarrena: Dirulaguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri Udalari jakinarazi beharko dio.
- Udalean jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturik jaso direla xede bereko diru-laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak.
- Udalean jakinaraztea diruz lagundutako programa finantzatu duten bestelako diru sarrerak, bazkide kuotetatik lortzen dena, esaterako.
- Erakundeak antolatzen dituen jarduerak guztietan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko dituzte.
- Diruz lagundutako jarduerari buruz, euskara erabili beharko da ekintzan bertan eta argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

- Era berean diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Zaldibiako Udalaren Euskararen Erabilera Plana, gainerako araudia eta Zaldibiako herriaren errealitate soziolinguistikoa.
- Ekintzei lotutako publizitatean Zaldibiako Udalaren babesa izan duela adierazi beharko da, hau da, udalaren logoa erantsi beharko da.

Hamahirugarrena:

1. **Baldintzak ez betetzea:** Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzetakoren bat ez bada betetzen, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da; gainera, legez dagokion interesak gehituko zaizkio. Honako kasu hauetan:
 - a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat ebazpen adierazitako jardueraz bestelakoetan erabiltzea.
 - b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezartzen direnak ez betetzea.
 - c) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38-2033 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoak.
2. **Jasotako zenbatekoak itzultzea:** Arestian aipatutako ez-betetzeetako edozein eginez gero, jasotako dirua eta dirulaguntzetan aplikagarriak diren berandutze interesak itzuli beharko dizkio onuradunak Zaldibiako Udalaren diruzaintzari.

Hamalagarrena: Diru-laguntzaren zenbatekoa esleitzeko baldintzak eta prozedura:

1. Eskaerak ezarritako epean aurkeztuta egon beharko dira.
2. Kultura Zerbitzuko teknikariak, eskariak aztertu ondoren, ebazpen proposamen bat egingo du Alkatetzan.
3. Ebazpena, alkateak emango du.

Hamabosgarrena: Dirulaguntza(k) ordaintzeko moduak, epeak eta baldintzak:

Dirulaguntzaren kitapena: Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:

- **Lehenengo ordainketa:** %60a, alkate-ebazpena eman eta 15 egunera.
- **Bigarren Ordainketa:** %40a, urteko memoria aurkeztu eta Kulturako teknikariak aldeko txostena oinarri duela alkatetzak dekretua eman eta, 15 egunera.

Hori horrela, 2027eko urtarrilaren 18a baino lehenago honako dokumentazioa aurkeztu beharko da Kultura departamentuan, 2026 urteko diru-laguntzak kitatu ahal izateko:

1. **Memoria**: Burutako jardueraren azalpen-memoria. Memoriak jasoko ditu diru-laguntza eman zeneko helburua bete dela egiaztatzeko beharrezko alderdi guztiak.
2. **Diru-sarreran eta gastuen egoera**: balantzea eta emaitza: Gauzaturiko kontzeptuengatik jasotako diru-funtsen aplikazioa.
3. **Fakturak edo eskuratutako dokumentuak**, ahal bada originalak, edota fotokopia konpultsatuak, egindako gastuaren egiaztagarri. Zaldibiako Udalak kontutan hartuko ditu elkarte bakoitzaren jarduerarekin zerikusia duten fakturak, edo arrazoi justifikaturik balego bestelakoak.

Hamaseigarrena: Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Diru laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua— ezarriko dira, bai eta aurrekontua egikaritzeko oinarriak eta aplikagarri diren gainerako xedapenak ere-

Hamazazpigarrena: Ebazpen honek Zaldibiako Udalaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zaldibia, 2026ko otsailaren 19a



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026IDIR0002-Deialdia/Convocatoria (Zaldibiako Udala)